

BALDINTZA PLEGUA: 2022

HERRIKO IGERILEKUAREN KUDEAKETA BALDINTZAK ETA KONTRATOA ADJUDIKATZEKO LEHIA ARAUTZEN DUENA

1.- XEDEA

Baldintza Plegu honen xedea, herriko igerilekuaren eremuan dauden instalazio eta ekipo guztien kudeaketa eta mantenimenduaren arauak ezarri eta kontratoaren kudeaketaren esleipena erregulatzea da.

Kontratu honen izaera juridikoa zerbitzu publikoaren kontratua da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen textu bateragina onartzen duen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 284 art. arabera.

2.- ARAUDIA

Kontratu administratiboa izanik, aplikagarriak izango dira, alde batetik plegu hauek eta bestetik, udal administrazioari aplikagarria zaion araudia.

3.- IRAUPENA

Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da eta bi aldeen adostasunarekin beste 4 urtetan luzatu ahal izango da. Hala eta guztiz ere, Udalak kontratua eteteko aukera izango du arau-hauste larriak ematen badira (Arau hauste larriak kontsideratuko dira Plegu hauen 7. puntuan azaltzen diren motatako gutxienez bi isun ezartzea, besteak beste).

4.- KUDEAKETAREN BALDINTZAK

- a) Urtealdi bakoitza, ekainaren 1ean hasi eta abuztuaren bukaeran bukatuko da instalakuntza orokorrentzako. Igerilekuaren kasuan, hondartzetako denboraldiari dagokiona izango da. Udal baimenarekin, denboraldi bakoitzeko egutegia aldatzeko aukera izan daiteke.

- b) Ordutegia, goizeko 11etatik arratsaldeko 8ak bitartekoa izango da igerilekuaren kasuan, eta tabernari dagokionez, astelehenetik ostegunera eta igandetan gaueko 11.30ak eta ostiral eta larunbatetan gaueko 01.30ak arte luzatu ahal izango da itxiera.
- c) Adjudikatzaileak, beregain hartu beharko ditu ondorengo gastu hauek: garbiketa, taberna eta aldageletako eraikineko argi gastuak, komunetako materiala eta gas kontsumoa.
- d) Udalak aldiz beregain beste gastu hauek hartuko ditu: Gurutze-Gorria, botikina, uraren tratamendurako materiala (kloro, azido, e.a.), makineriaren erreposizioa eta ur kontsumoa.
- e) Udal igerileku eremu osoa garbi mantendu beharko da eta bereziki, ondoren aipatzen diren puntu hauek:
- Egunero garbitu beharrekoak: aldagelak (erabileraren arabera gehiagotan ere), Gurutz Gorriko gela eta igerileku ingurua.
 - Goizero egin beharreko lanak: igerilekuan “aspiragailua” pasa eta azaleko zikinak garbitu.
 - Dagokion garaian, igerileku barruko azuleju ertzetan zepilua pasa.
- f) Bereziki kontutan hartu beharko den zeregina, depurazio sistemaren makinaren mantenimendua izango da: kloroa eta ph-a, gutxienez egunean bitan kontrolatuz. Depurazio sistema, egunero, igerilekua ireki baino 90 minutu lehenago martxan jartzea beharrezkoa da. Bestalde, bonbetako filtroa eta depuradoraren filtroa, egunero garbituko dira. Lan hauek, kontzesiodunak egin beharko ditu pertsonalki eta salbuespen gisa, hauen ordeztuak beste hirugarrenen batek egin beharko balituzke, Udal ordezkariaren oneritziarekin izango da, eta beti ere, honen instrukzioak jaso ondoren.
- g) Derrigorrezkoa izango da eguerdian otorduak eskeintzea eta egunean zehar gutxienez plater konbinatuak eta bokadiloak

5.- BALDINTZA EKONOMIKOAK.

- a) Adjudikatzaileak, jarduera martxan jarri aurretik, 2.500 Eurotako abala aurkeztu beharko du Udaletxean. Abal hau, sortu litezkeen kalteen

bermea izango da eta kontratuaren amaieran bueltatuko da. Baita ere, abala, denboraldi osoan zerbitzua ematearen berme izango da, eta zerbitzuaren eteteko arrazoirik balego, hauek Gobernu Batzordeak onartu beharko ditu.

- b) Esleipenaren prezioa 2.500 Eurotako izango da eta denboraldian saldutako sarreraren eta denboraldiko bonoen %20a.
- c) Igerilekuko instalazioen aseguruia Udalaren kargu izango den moduan, jarduerari dagokiona adjudikatzailearen kargu izango da.
- d) Igerilekurako sarreraren prezio, baldintzak eta arauak Udalak ezarriko ditu dagokion arauen bidez.
- e) Fiskal, Lan eta Gizarte Segurantza arloko arauak betetzera behartzen dira adjudikatzaileak, eta Udalak ez du inolako ardurarik izango arau hauek ez betetzeak ekar litzazkeen ondorioetaz.

6.- JARDUERAREN KONTROLA

Udal Teknikariak askatasun guztia izango dute igerilekuko instalazioetara sartu eta erabileraren azterketa egin eta beharrezko aginduak emateko adjudikatzaileari, agindu hauek liburu batean jasoz.

Jarduera aurrera eramateko garaian, makinaren konponketa noren kargu izango den argi ez badago, udalak aukeratutako hirugarrenengo aditu batek erabakiko du ardura hau norena izango den, adjudikatzailearena edota sistemaren akats arrunta.

7.- ISUNAK.

Udalak, igerilekuaren kudeaketan ikusten dituen akatsengatik, 1.000 eta 3.000 euro bitarteko isunak ezarri ahal izango ditu, besteak beste, kasu hauetan:

- a) Udalak baimendu gabeko erabilerak eta arauak ez errespetatzea.
- b) Udal Teknikariak emandako aginduei ez kasurik egitea.
- c) Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egindako ur analisisien emaitza “ez egokia” ematea, gutxienez bi kasutan.
- d) Udalak bere erabakiz akats larritzat har dezakeen beste edozein.

8.- AURKEZTEKO AUKERA.

Lizitazio honetara aurkezteko ondorengo baldintza hauek bete beharko dira:

- a) 18 urte beteak izatea eskaera aurkeztera egunean.
- b) Sukaldaritza lanetan aritzeko eskatzen den titulazioa edukitzea, hau da, elikagaiak maneiatzekoa (manipulador de alimentos), lizitzaileak berak, denboraldiaren hasierarako.
- c) Antzeko makineria erabiltzen gutxieneko 5 urteko esperientzia edo instalazio horien inguruko formakuntza izatea dagokion titulazio bidez.

9.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA.

Eskaerak, 2022ko apirilaren 11etik 22a bitartean aurkeztu beharko dira Udal bulegoetan.

10.- ADJUDIKAZIO PROZEDURA.

Kontuan hartuta lehen aipatu Legearen 158 atalean jasotzen den kasua dela, 156 atalean jasotzen den “prozedura irekia”-ren bidez egingo da esleipena.

Esleipen irizpide bakarra eskeintza ekonomiko hoberena izango da.

11.- MAHAI KONTRATATZAILEA.

Proposamenak aztertu eta onartu dituen mahai kontratatzaileak Gobernu Batzordeari egingo dio esleipen proposamena. Mahai kontratatzailea ondoko kideak osatuko dute:

Mahaiburua: Alkatea; bokalak, aparejadorea, Idazkari-kontuhartzailea, rekaudazioko arduraduna. Idazkari lanetan , udal administraria.